BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

ELORRIOKO UDALAREN ERAIKINETAKO SUTEEN KONTRAKO SISTEMEN MANTENTZE-LANAK KONTRATATZEKO (1 LOTEA), ETA BAITA ALARMA-SISTEMEN ETA TELEBISTA-ZIRKUITO ITXIAREN MANTENTZE-LAN PREBENTIBOA ETA ZUZENTZAILEA (2 LOTEA)

1. KONTRATUAREN XEDEA

Baldintza teknikoen plegu honen xedea da jarraian zehaztuko diren lanak kontratatzeko enpresa esleipendunak bete behar dituen baldintzak, lanaren norainokoa eta betebeharrak zehaztea:

1 lotea: udal eraikinetako suteen kontrako babes-sistemak konpontzea eta mantentze-lanak egitea, BIES **delakoak barne, itzaltze automatikoko instalazioak, sakagailuak, suteen kontrako** alarma**-sistemak eta seinaleztatze-sistemak (larrialdietako argiteria eta kartel adierazleak).**

2. lotea: udal eraikinetako telebista-zirkuito itxiaren instalazioak eta arrotzak detektatzeko alarma**-sistemak konpontze- eta mantentze-lanak.**

Kontratu honen barruan dauden ekipo eta instalazioen inbentarioa I ERANSKINAREN 2 eta 3 tauletan deskribatutakoak dira.

2. ARAUDI APLIKAGARRIA

Kontratu honetako xede diren mantentze-operazio guztiak lotuta egongo dira indarrean dauden arauetara, ez dute mugarik ezta baztertzaileak dira, eta enpresa esleipendunak kontuan izan beharko ditu zerbitzua emoten duen bitartean, bereziki honako hauek:

- Maiatzaren 22ko 513/2017 Errege Dekretua, Suteen Kontrako Babes Instalazioen Erregelamendua onartzen duena.
- Apirilaren 4ko 5/2014 Legea, Segurtasun Pribatukoa.
- Otsailaren 1eko INT/316/2011 aginduaren II Eranskina, Segurtasun Pribatuko eremuan alarma-sistemen funtzionamenduari buruzkoa.
- Martxoaren 17ko 314/2016 Errege Dekretua, Eraikuntzaren Kode Teknikoa onartzekoa.

- Abuztuaren 2ko 842/2002 Errege Dekretua, behe-tentsiorako Erregelamendu Elektroteknikoa onartzekoa.
- Behatzekoak eta aplikatzekoak diren Indarreko xedapenak

3. INSTALAZIOEN AURRETIAZKO BALDINTZAK

Enpresa lizitatzaileak egungo instalazioak dauden moduan onartzen ditu eta informazio guztia du honako hauei buruz:

- Eraikinen izaera.
- Kudeatu behar diren ekipo eta instalazio guztien zerrenda eta egoera.
- Sartzeko baldintza partikularrak, eraikinen eta bere instalazioen segurtasunari eta espezifikotasunari dagokienez.

Baita ere, emongo diren zerbitzuak, eraikin bakoitzaren kantitatean eta ezaugarriekin bat etorri beharko dute.

Ondore hauetarako enpresa lizitatzailea udal bulego teknikora joan ahal izango da instalazioak bisitatu ahal izateko eta horien gaineko informazio zehatza lortzeko.

Enpresa esleipendunak instalazioak egoera errealean hartuko ditu kontratuaren hasieran, horretarako erreparorik jarri barik.

4. EGIN BEHAR DIREN LANEN NORAINOKOA ETA DESKRIBAPENA

1 lotea: udal eraikinetako suteen kontrako babes-sistemen konpontze- eta mantentze-lanak egitea, BIES delakoak barne, itzaltze automatikoko instalazioak, sakagailuak, suteen kontrako alarma-sistemak eta seinaleztatze-sistemak (larrialdietako argiteria eta kartel adierazleak).

Esku-beharra eta joan-etorrietako kostuak kontratu honetako prebentzioko mantentze-zerbitzuen barruan geratzen dira.

Enpresa esleipendunak dituen sistema guztiak aztertu beharko ditu eta inbentarioa egin beharko du, honako hauek zehaztuz: sistema-mota, kokalekua, instalazio-data eta iraungitze-data. Kontratuaren hasieran eta urtero, lizitatzaileak lote honen barruan dauden instalazio guztietarako mantentze-lan prebentibo eta zuzentzaile programa bat egin beharko du.

2. lotea: udal eraikinetako telebista-zirkuito itxiaren instalazioak eta arrotzak detektatzeko alarma-sistemen konpontze- eta mantentze-lanak.

Zerbitzuaren enpresa esleipendunak kameren eta bideograbatzaileen eta baita Udalak dituen alarma-sistemen mantentze- eta kontserbazio-lanak egingo ditu.

Modu berean, kontratu honen barruan sartzen dira alarmak harteko zentralaren konexioa eta kuota, inbentarioaren arabera.

Enpresa esleipendunak, dituen sistema guztien azterketa eta inbentarioa egin beharko ditu, sistema-mota zehaztuz, kokalekua eta instalazio-data. Kontratuaren hasieran eta urtero, lizitatzaileak lote honen barruan dauden instalazio guztietarako mantentze-lan prebentiboa eta zuzentzaile programa bat egin beharko du.

4. ZERBITZUAREN EZAUGARRIAK

4.1. 1 LOTEA

4.1.1 PREBENTZIOZKO MANTENTZE-BEHARRAK

Enpresa esleipenduna instalazioetan dauden elementu guztien aldizkaiko prebentziozko mantentze-lanak egitera behartuta geratuko da, honako maiztasun honen arabera:

4.1.1.1. Itzalgailuak

Hiruhilero

- Itzalgailuak bere lekuan daudela eta itxura baten inolako kalterik ez dutela egiaztatzea.

- Babestu behar duten arriskurako egokiak direla egiaztatzea, baita indarrean dagoen araudia.

- Sarrera oztopatuta ez dutela egiaztatzea, ikusten direla edo ondo seinaleztatuta daudela eta aurreko aldean erabiltzeko instrukzioak dituztela.

- Agente itzaltzailearen karga-egoera egokia egiaztatzea, baita botilatxoen presioa.

- Sistemaren egoera orokorra egiaztatzea.

- Detektagailuen funtzionamendua egiaztatzea.

- Zentraltxoen funtzionamendua egiaztatzea.

- Itzalgailuen seinaleztapena egiaztatzea.

Urtero

- “Urteko mantentze-lanen programan” ezarritakoaren arabera mantentze-zereginak egitea.

- Itzalgailu mugikorren kasuan, gainera, lekualdatze-sistemaren egoera ona egiaztatuko da.

5 urtero

- C mailako proba bat egitea (tinbrea), abenduaren 12ko 2060/2008 Errege Dekretuz onartutako Presio Ekipoen Erregelamenduaren III. eranskinean ezarritakoaren arabera.

4.1.1.2. Suteetako ur-hartune hornituak (BIES)

Hiruhilero

- Ekipoen irisgarritasun ona eta seinaleztapena egiaztatzea.

- Manometroa irakurrita zerbitzuaren presioa egiaztatzea.

- Balbularen funtzionamendu zuzena egiaztatzea.

Urtero

- Urteko ikuskaketa eta mantentze-zereginak egitea UNE –EN 671-3 arauak xedatzen duenaren arabera.

5 urtero

- Bost urteko ikuskaketa eta mantentze-zereginak egitea UNE –EN 671-3 arauak xedatzen duenaren arabera.

4.1.1.3 Detektatzeko ekipoak

Hiruhilero

- Eskuzko alarma-sakagailuen seinaleztapena egiaztatzea.

- Argi- eta soinu-ohartarazleen funtzionamendua egiaztatzea.

- Aplikagarria bada, megafoniaren funtzionamendua egiaztatzea.

- Aplikagarria bada, sua itzaltzeko eremu bakoitzean audioaren ulergarritasuna egiaztatzea.

Seihilero

- Sakagailuen egoera egiaztatzea (itsatsita dauden, garbiketa, korrosioa, kanpoko itxura).

Urtero

- Sakagailuen eta detektoreen funtzionamendu-froga.

4.1.2 Zuzentzeko mantentze-beharrak

Zuzentzeko mantentze-lanak izango dira segurtasun-sistemen funtzionamendu normala lortzera bideratutako ekintza guztiak, matxura edo gorabehera baten ondorioz.

Zuzentzeko mantentze-lanen barruan geratuko dira ekipamenduaren konponketaren edota ordezpenetik eratorritako kostu guztiak.

Berehala konponduko da kontratu honen barruan sartuta dauden instalazioetan sortutako edozein matxura.

4.1.3. Larrialdietako argiteria

- Hiruhilero begiz egiaztatuko da larrialdietako luminarien egoera eta funtzionamendu-froga bat egingo da. Luminaria akasdunekin zerrenda duen txosten bat egingo da. Ordeztea edo konpontzea enpresa esleipendunari dagokio.

4.1.4. Seinaleztapen luminiszenteko sistema

Funtsean egiaztatu egin beharko da, seinaleztapen luminiszentea dagoela, zuzen jarrita dagoela eta ondo ikusten dela.

- Urtero egiaztatu beharko da, begiz, seinaleztapena dagoela, behar den lekuan kokatuta dagoela, eta egoera onean dagoela.

- Berrikuspena egin izanaren erregistroa egingo da.

- Urtero egingo da seinale akasdunekin zerrenda duen txosten bat. Ordeztea edo konpontzea enpresa esleipendunari dagokio.

4.2. 2 LOTEA

4.2.1 Prebentziozko mantentze-beharrak

Prebentziozko mantentze-behartzat hartzen dira Elorrioko Udalak dituen bideozaintza-sistemen eta alarma-sistemen funtzionamendu egokia eta osoa lortzera bideratutako ekintza guztiak.

Enpresa esleipendunak prebentziozko mantentze-lan bat egingo du urtean, honako hauek egiteko:

- Karkasak eta pantailak desmuntatu egingo dira, barrualdea eta kanpoaldea garbitzeko, eta behar bezala orientatuko dira, hainbat arrazoi direla medio ikus-eremu zuzenetik desbideratu badira.

- Kutxen eta koadroen osagaien berrikusketa egingo da.

- Kameren ordua berrikusiko da.

- Kameren eta alarma-sistemen txekeo bat egingo da. Anomaliak eragin ditzakeen edozein gorabehera idatziko da, dagokion berrikuspenean egiaztatu ahal izateko. Txekeo honek softwarearen eguneratzea barne izango du.

.

4.2.2 Zuzentzeko mantentze-beharrak

Zuzentzeko mantentze-lanak izango dira segurtasun-sistemen funtzionamendu normala lortzera bideratutako ekintza guztiak, matxura edo gorabehera baten ondorioz.

Zuzentzeko mantentze-lanen barruan geratuko dira ekipamenduaren konponketaren edota ordezpenetik eratorritako kostu guztiak.

4.2.3. Kameren ezaugarriak

Elorrioko Udalak CCTV Avigilon sistemako kamerak ditu, CRAra konektatuta daudenak. Horregatik, beharrezkoa izango da enpresa esleipendunak fabrikatzaileek egindako ziurtagiri bat edukitzea, zeinetan, instalatzaileek dauden instalazioak konpontzeko gaitasuna dutela egiaztatuko duen.

5. KONPONKETEN BERMEA

Enpresa esleipendunak bermatu egingo ditu gutxieneko bi (2) urteko epean egiten dituen lan guztiak, bai konponketa, bai eraberritzea edo instalazio barria, eta epe honen barruan funtzionamendua zuzena izan dadin behar diren lan guztiak bere kontura egingo ditu, Udalari ezer fakturatu barik.

Bermea, osoa izango dela ulertuko da, jarritako materiala eta esku lana barne, eta sor daitezkeen gastu guztiak ukituko ditu, hau da, garraioa, behargineen joan-etorriak, esku-lanaren balioa, materialak eta zergak.

6. ALARMAK JASOTZEKO ZENTRALA

Kontratuaren prezioan alarmak jasotzeko zentralera konexioa sartuta egongo da, hala nola intrusioen aurkako zentrala duten higiezinengatik dagokien kuota.

Alarmak jasotzeko zentralaren barne dauden zerbitzuak honako hauek izango dira:

- Lapurreta-abisua.
- Telebistako zirkuito itxi bidezko egiaztapen-bideoa, dagoen kasuan.
- Mozketa elektronikoaren eta matxura teknikoen kontrola.
- 24 orduko zerbitzua
- Alarmak jasotzeko zentralaren zerbitzua

.

8. ZERBITZUAREN ZUZENDARITZA ETA IKUSKARITZA

Zerbitzuaren zuzendaritza eta ikuskaritza kontratuaren arduraduna den kontratazio-atalari dagokio, zerbitzua modu normal eta eraginkorrean egiteko.

9. ZERBITZUAREN ARDURADUNA

Enpresa esleipendunak ordezkari bat izendatu beharko du zerbitzuaren arduradun izenarekin, eta behin Udalak onartutakoan, honako hauetarako gaitasun nahikoa izan beharko du:

- Enpresa esleipendunaren ordezkaritza izatea zerbitzua egikaritzeko eta martxa ona eroateko.
- Zerbitzua zelan emon antolatzea eta zuzendaritzatik (kontratuaren arduraduna) jasotako aginduak praktikan jartzea.

  Honi proposatu edo honekin aritu egikaritzen den bitartean sortzen diren arazoak ebazteko.

  Izan ditzakeen izaera pertsonaleko datuen arduraduna izatea.

10. ERREGISTRO-LIBURUA ETA KONTROL-PARTEAK

Kontrol-parteak baldintza-agiri honetan agertzen den edozein lan egiten den bakoitzean bete beharko dira. Kontrol-parte hauek kontratuaren arduradunari (zerbitzuaren zuzendaritza) bialduko zaizkio, beharrak egiten diren unean.

Enpresa esleipendunak erregistro-liburua zabaldu beharko du, eta udal teknikarien esku egongo da, eskatzen dutenean.

Enpresa esleipendunak aipatutako liburua egin eta eguneratu egingo du, honako intzidentzia hauek jaso beharko dituenean:

- Mantentze-lanen bisitak.

- Egindako aldaketak eta beharrak. Operazio bakoitzerako honako datu hauek jasoko dira: eguna, zerbitzuaren hasiera- eta amaiera-orduak, operazio-mota, eta aldatutako piezak.

- Oharrak.

11. ESLEIPENDUNAREN BESTE OBLIGAZIO BATZUK

11.1 Enpresa esleipendunak honetarako izendatutako udal arduradunak helarazitako abisuak erantzun behar izango ditu, baita Udaltzaingoak bialdutakoak, eta ondoren, horren barri emon beharko do aipatutako arduradunari.

11.2. Zerbitzua emoten hasi eta gero mantentze-lanak behar dituzten instalazio-kopuruak gora egiten badu, gehitutako instalazio horiei dagokien zenbatekoa proportzioan baloratuko da, esleipenaren prezioa oinarri hartuta.

11.2 Enpresa esleipendunak erantzukizun zibileko aseguru poliza bat kontratatu beharko du milioi bat eurokoa, gutxienez, modu zuzenean edo zeharka instalazioetan edo zerbitzua emoteko egin behar izango diren lanen ondorioz gerta daitezkeen istripu guztiak, kalteak edo galerak estaltzeko. Poliza hau zerbitzuak emoten hasi aurretik aurkeztu beharko da.

11.4. Enpresa esleipenduna behartuta geratuko da, kontratuari atxikituko dion pertsonalarekin lotuta, lan- eta gizarte-arloan eta, bereziki, laneko arriskuen prebentzioari buruz indarrean dauden xedapenak betetzera (Lan Arriskuen Prebentziorako azaroaren 8ko 31/1995 Legea), baita oro har bete behar diren beste batzuk.

12. ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

Enpresa esleipendunak bere betebeharrak ez betetzeagatik kontratua suntsiarazteko ebazpenaren kaltetan barik, kontratazio-organoak honako zehapen hauek ezarri ahal izango ditu:

12.1 Arau-hauste arinak direnean:

- 1. arau-haustea: Urteko kuota finkoaren % 2a.
- 2. arau-haustea: Urteko kuota finkoaren % 3a.
- 3. arau-haustea: Arau-hauste larria izango da.

12.2. Arau-haustea larritzat hartzen bada, Udalak bi aukera izango ditu: urteko kuota finkoaren % 10eko zigorra ezartzea edo kontratua suntsiaraztea ez betetzeagatik.

12.3. Arau-hauste arinak izango dira:

- Kontrol-parteak ez entregatzea ezarritako maiztasunarekin.

12.4 – Arau-hauste larriak izango dira:

- Dei edo abisu bat ez erantzutea lehenengo 48 orduen barruan. 2 LOTEAri dagokionean, edozein dei edo abisu lehenengo zortzi orduen barruan erantzun behar izango da.
- Ezarritako prebentziozko eta zuzentzeko mantentze-programak ez betetzea.
- Suteen kontrako alarma-instalazioetarako 513/2017 Errege Dekretuan, eta segurtasun sistemen kasuetan 2364/1994 Errege Dekretuak zehaztutako berrikuspenen maiztasuna ez betetzea.

13. MANTENTZE ZEREGINAK EGINGO DITUEN ENPRESAREN HOMOLOGAZIOA ESKATZEA

Enpresek egiazitatu beharko honako baimen hauek dituztela:

- Suteetatik babesteko instalazioetarako homologatutako enpresa instalatzaile eta mantentzaile-titulua, dagokion Industria Ordezkaritzarena.
- Bidegabe sartzetik babesteko instalazioetarako homologatutako enpresa instalatzaile eta mantentzaile-titulua, Poliziaren Zuzendaritza Nagusiarena edo parekidearena.

14. KONTRATUA EGIKARITZEKO HIZKUNTZA BALDINZAK

Zerbitzua emoten den bitartean, enpresa esleipendunak Elorrioko Udalak onartutako Euskararen Ordenantzak jasotzen dituen hizkuntza irizpideak bete beharko ditu, bai ahozkoan, bai idatzizkoan.

15. GIZONEN ETA EMAKUMEEN ARTEKO BERDINTASUNA:

Karteletako komunikazio-hizkuntzak genero berdintasun-terminoak beteko ditu eta, terminologia inklusiboa erabiliko da.

16. I ERANSKINA

1 taula: eraikinen zerrenda

1 taula: ERAIKINEN ZERRENDA

UDAL ERAIKINAK	**Kokalekua.**
Udaletxea	Herriko Plaza, z/g
Iturri Kultur Etxea	Elizburu, 18
Udaltzaingoa	Buzkantz, 2
Turismo Bulegoa	Berrio-Otxoa, 1
Arriola Kultur Etxea	Elizburu, 3
Udaletxeko brigada	Berriozabalbeitia,2 pab 15
Herri Eskola / Institutua	San Roke, 12
Erabilera Anitzeko Eraikuntza	San Roke, 12

Haurreskolak	Goieta, 62
Musika Eskola	San Roke, 3
Rokodromoa	San Roke, 1
Kirol-etxea	Elizburu, 18 atzeko aldea
Aldapebeitia	Urarka, 4
Ametsola	San Juan, 19
Kiroldegia	Klaudio Gallastegi, 1
Futbol-zelaia	Eleizalde, 3
Udako igerilekuak	Eleizalde, 3
Jubilatuen etxea	Ibaikua, 5
Hilerria	San Roke, 5

2 TAULA: itzalgailuen inbentarioa

TABLA 3: INVENTARIO DE EXTINTORES POR EDIFICIOS

	CO2			AGUA (AFFF)			POLVO ABC					GUZTIRA	SISTEMA DETECCION INCENDIOS			SISTEMA DE LUCHA CONTRAINCENDIOS			LUCES DE EMERGENCIA	CARTELERÍA SALIDA EMERGENCIAS
	2 Kg	3,5 Kg	5 Kg	6 Lt	9 Lt	10 Lt	3 Kg	6 Kg	6 Kg AUT	9 Kg	12 Kg		CENTRAL	Nº DETECTORES	Nº PULSADOR	Nº EXTINTORES	Nº BIES	EXTINCION AUTOMATICA	Nº LUCES	
Udaletxea	2	-	1	10	-	-	-	2	-	-	-	15	Bizkor	29	7		5	Ez	62	?
Iturri Kultur Etxea	2	-	3	-	-	-	-	23	-	-	-	28	Bizkor	57	9		4	Bai	71	36
Udaltzaingoa	1	-	-	3	-	-	-	1	-	-	-	5	Ez	0	0		0	Ez	9	2
Turismo Bulegoa	-	-	1	2	-	-	-	1	-	-	-	4	Ez	0	0		0	Ez	3	1
Arriola Kultur Etxea	6	-	4	12	-	-	-	6	-	-	-	28	Bizkor	45	6		10	Bai	50	38
Brigada	-	-	-	-	-	-	-	2	-	-	-	2	Ez	0	0		0	Ez	2	0
Herri Eskola / Institutua / Erabilera Anitza Eraikuntza	5	-	11	2		-	-	40	-	-	-	61	Bizkor	236	30		10	Ez	242	1
Jantokia	2	-	1	-		-	-	6	-	-	-	6	Ez					Ez		
Haur Eskola	2	-	-	4	-	-	-	6	-	-	-	12	Ez	0	0	ver tabla izquierda	0	Ez	19	10
Musika Eskola	-	-	-	-	-	-	-	5	-	-	-	5	Ez	0	0		0	Ez	2	1
Rokodromoa	-	-	-	-	-	-	-	1	-	-	-	1	Ez	21	4		0	Ez	25	?
Kiroletxea	-	-	2	-		-	-	21	-	-	-	23	Ez	0	0			Ez	11	0
Aldapeheitia	-	-	-	2	-	-	-	-	-	-	-	2	Ez	0	0		0	Ez	13	3
Ametsola	-	-	-	2	-	-	-	-	-	-	-	2	Bizkor	34	4		2	Bai	60	34
Kiroldegia	4	-	4	-	-	-	-	18	-	-	-	26	Bizkor	0	3			Ez	49	32
Futbol Zelaia	-	-	1	2		-	-	2	-	-	-	5	Ez				0	Ez		
Udako igerilekuak	-	-	2	-		-	-	4	-	-	-	6	Ez	0	0		0	Ez	36	14
Jubilatuen etxea	-	-	-	9	-	-	-	-	-	-	-	9	Ez	0	0		0	Ez	0	0
Hilerria	-	-	1	-	-	-	-	-	-	1	-	2								
GUZTIRA	24	-	31	48	-	-	-	138	-	1	-	242								

3 taula: arrotzetatik babesteko alarmen eta bideo-zaintzaren inbentarioa

	CONEXIÓN A CENTRAL RECEPTORA	SISTEMA ANTIINTRUSION / CÁMARAS DE SEGURIDAD			
EDIFICIOS		CENTRAL	Nº DETECTORES	VIDEOVIGILANCIA	Nº CÁMARAS
Udaletxea	Ez	Ez	0	Ez	0
Iturri Kultur Etxea	Bai	Ez	---	Bai	12
Udaltzaingoa	Ez	Ez	0	Ez	0
Turismo Bulegoa	Ez	Ez	0	Ez	0
Arriola Kultur Etxea	Bai	Bizkor	4	Ez	0
Udaletxeko brigada	Bai	Securitas Direct	3	Ez	0
Herri Eskola/ Instututua/ Erabilera Anitza Eraikuntza	Bai	Bizkor	---	Bai	19
Haur eskola	Ez	Ez	0	Ez	0
Musika Eskola	Bai	Bizkor	3	Ez	0
Rokodromoa	Ez	Ez	0	Ez	0
Kiroletxea	Ez	Ez	0	Ez	0
Aldapebeitia	Ez	Ez	0	Ez	0
Ametsola	Ez	Ez	0	Ez	0
Kiroldegia	Bai	Prosegur	3	Ez	0
Futbol Zelaia	Bai	Securitas Direct	2	Ez	0
Udako igerilekuak	Bai	Prosegur	0	Bai	4
Jubilatuen etxea	Ez	Ez	0	Ez	0
Hilerria	Ez	Ez	0	Ez	0